

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko maiatzaren bostean, arratsaldeko zazpiak direnean, Ohiko Bilkura egitearren Irurtzongo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay García
Jose Luis Viñas Estudillo
Xabier Unanua Goicoechea
Jose Peinado Cuesta
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko apirilaren 7an egindako Bilkuraren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2009ko apirilaren 7az geroztik Alkatezak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

GIZARTE ARLORAKO DIRU LAGUNTZAK

Kirol Batzordeak eta Gizarte Ongizate Batzordeak 2009ko apirilaren 23an eta 29an, hurrenez hurren, egindako bilkuretan onartutako proposamenekin, ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea erabaki da aho batez:

1.- 1.000,00 euro Larrazpi Elkarteari, Haize Eguna antolatzeagatik, 2008ko aurrekontu luzatuko 4513 2270708 kontusailaren kargura.

2.- 1.200,00 euro Asdire-Larrakili, 2009an zehar bere jarduerak gara ditzan, 2008ko aurrekontu luzatuko 121 489 kontusailaren kargura.

3.- 1.300,00 euro Itxipururi, 2009an zehar bere jarduerak gara ditzan, 2008ko aurrekontu luzatuko 121 489 kontusailaren kargura.

HEZKUNTZA ARLOKO DIRU LAGUNTZAK

Hezkuntza Batzordeak 2009ko apirilaren 23an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea erabaki da aho batez:

1.- 1.100,00 euro Atakondoa Ikastetxeko guraso-elkarteari, urteko ekintzak garatzeko, 2008ko aurrekontu luzatuko 4515 48202 kontusailaren kargura.

2.- 1.200,00 euro Txokoa Guraso Elkarteari, berak sustatzen duen 0-3 urteko haur-zentroaren mantenimendurako, 2008ko aurrekontu luzatuko 121 489 kontusailaren kargura. Kopuru hori Irurtzunen ikasleak dituzten familia bakoitzari 100,00 euro esleitzetik sortzen da.

KULTURA ARLORAKO DIRU LAGUNTZAK

Hezkuntza eta Kirol Batzordeek 2009ko apirilaren 23an egindako bilkuran onartutako proposamenekin, ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea erabaki da aho batez:

1.- 3.200,00 euro Orritz dantza-taldeari, urteko ekintzak garatzeko, 2008ko aurrekontu luzatuko 4515.48202 kontusailaren kargura.

2.- 2.000,00 euro Dantzari Txikien Eskolari, urteko ekintzak garatzeko, 2008ko aurrekontu luzatuko 4515 48202 kontusailaren kargura.

3.- 1.000,00 euro Irurtzungo Abesbatzari, urteko ekintzak garatzeko, 2008ko aurrekontu luzatuko 4515 48202 kontusailaren kargura.

4.- 1.500,00 euro Aisialdia taldeari, 8tik 12 urtera bitarteko haurrekin beren ekintzak garatzeko, 2008ko aurrekontu luzatuko 469 2270707 kontusailaren kargura.

KIROL ARLORAKO DIRU LAGUNTZAK

Kirol Batzordeak 2009ko apirilaren 23an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea erabaki da aho batez:

1.- 2008ko aurrekontu luzatuko 4523 2270901 kontusailaren kargura:

- 1.250,00 euro Iratxo SCDRri, Sakanako XX. Ibilaldi Handia antolatzeagatik.
- 1.000,00 euro Dos Hermanas txirrindulari-taldeari, Nafarroako Master Itzulia antolatzeagatik.
- 1.300,00 euro Shotokan karate-taldeari, Irurtzungo haur-mailako XXII. Karate Lehiaketa antolatzeagatik.

2.- 2009ko aurrekontu luzatuko 4523.0070901 kontusailaren kargura, beren urteko ekintzak garatzeko:

- 2.900,00 euro Irurtzungo Pilota Taldeari.
- 1.450,00 euro Bi Aizpe Pilota Elkarteari.
- 3.800,00 euro Xota areto-futbol eskolari.
- 2.700,00 euro MRA Xotari (autobusa).
- 500,00 euro saskibaloia eskolari.
- 250,00 euro Pistones motoklubari.

Rekalde jaunak esan du bigarren puntuko diru-laguntzak aipatu taldeei onartu zaien diru-kopuruaren % 50 dela, eta gainerako % 50 egindako ekintzen memoriak eta ziurtagiriak aurkeztutakoan ordainduko dela.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumena.

Iriarte jaunak esan duenaren arabera, sortu diren hainbat aferari irtenbidea aurkitze aldera, Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruneke Ministerioari eskatuko zaio Artadian Plazaola bidearen tunela egonkortzeko lanak Plazaola Natur Bidearen 1. Fasetzat har ditzala.

GALDE-ESKEAK

Ez dago.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hamabost minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.